

Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeari

2018ko urriaren 18an Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordean, 09/10-2018 erabakia hartu zen, zeinetan Haurreskolak Partzuergoak eskainitako zerbitzuen prezio publikoak finkatzen ziren. Horretan, 0 kuota tartea, alegia, urteko errenta 18.000eurotik beherakoa duten familientzako tartea, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera jarri zen indarrean EAEko Udal haur eskoletan eta Haurreskolak Partzuergoan.

Geroztik, familia asko izan dira onura hori gozatu ahal izan dutenak eta asko dira egun, eskatzen diren paper eta tramite burokratikoak direla medio kanpoan geratzen direnak ere.

Arrazoiak ondorengoak dira:

- Paperik ez daukatelako.
- Diru sarrerak justifikatzeko aukerarik ez dutelako eta hortaz, kuota handiena ezartzen zaielako.
- Arrakala digitala (baliabide eza edo ezagutza eza) eta hizkuntza arrakala.
- Gure jendarteko tramite burokratikoak egiteko ezagutza eza.

Honek, familia hauek guztiak egoera latz eta injustu batean uzten ditu, jendarte bazterketa egoeran.

Eskoletako jantokiko beken kudeaketan, aurretik aipatutako arrazoi berdinentatik, familia asko beka aukerarik gabe geratzen ziren. Iazko ikasturte amaieran eta ikusirik COVID-19 pandemiaren eraginez familia askoren egoerak okerrera egin duela, elkarre ezberdinen arteko salaketa eta elkarlanaren ondorioz burokratizazioan malgutasuna eta salbuespen batzuk egitea lortu zen.

LAB sindikatutik aspaldian aldarrikatzen ari gara, Haurreskolak Partzuergoak eskaintzen duen 0-3 adin tarterako hezkuntza zerbitzu publikoa, unibertsala, kalitatekoa, euskalduna eta hezkuntza sailean integratua izateaz gain, inklusiboa eta doakoa izan behar dela.

Horregatik, Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeari honako eskaera egiten diogu:

- 0-3aren doakotasuna lortu bitartean, baldintzak eta tramiteak errazteko jantokiko beketarako hartu ziren neurriak ere haurreskoletako matrikulazioan aintzat hartzea.
- Eusko Jaurlaritzari Haurreskolak Partzuergoaren zerbitzuaren erabateko doakotasuna lortzeko neurriak eta erabakiak har ditzala, Eusko Legebiltzarrak 2018an egin zuen bezala.

Erantzuna ahalik eta lasterren jasoko dugulakoan, jaso agur bat.

LAB SINDIKATUA

Euskal Herrian, 2021eko azaroaren 25an.